

Euskal ekonomiaren bilakaera 2022IIIH

2022ko abenduaren 7a



kutxabank
empresas

1

Laburpena

2

**Euskal
ekonomia**

BPGd

Barne eskaria

Kanpo sektorea

Lan-merkatua

Inflazioa

Sektore publikoa

Finantza-sektorea

Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

1. 2022IIIHn euskal ekonomia moteltzen ari da

2022IIIHn, euskal ekonomiaren BPGd-a **urte arteko % 3,8** hazi zen eta haren erreferentziazko ingurune hurbilarekin bat datorren bidea egiten ari da. Hau da, estatuaren pare dago (% 3,8) eta Eurogunearen gainetik (% 2,1). Urteak aurrera egin ahala, nabaria da indarraren galera, ziurgabetasuna oso handia den testuinguru batean. Itxieran hondoa jo ondoren, 2023ko lehen hiruhilekotik aurrera joera aldatuko dela aurreikusten da, nahiz eta ez den ezinezkotzat jotzen atzeraldi batean sartu-irten azkar bat egitea.

Hazkundearen intentsitatea pixkanaka apaltzen ari da oraindik. **Barne-eskaria** handituz ari da 22IIIHn (% 2,4), **FBKaren tasan atzeraldi txiki batekin** (% 4,9) eta **Azken kontsumo** maila altuagoekin (% 1,7), sektore publikoaren uzkuratze txikiagoaren ondorioz. **Esportazioen** (% 9,2) eta **Inportazioen** (% 5,6) hedapen-tasa apalagoaren ondorioz, **kanpo-sektorearen** ekarpena **1,4 pp**-koa izan da, aurreko bi hiruhilekoetan 2,6 pp-koa izan ondoren.



Lan-merkatuaren portaera onak ez du etenik izan, eta 22IIIHn 3.490 enplegu gehiago sortu dira eta **langabezia-tasa % 7,9ra** jaitsi da. **22IIIHn, lan-okupazioari** dagokionez, lanaldi osoko lanpostuak milioitik gora dira, hau da, iazko hiruhileko berean baino 19.513 enplegu gehiago. Horietatik 17.453 enplegu Zerbitzuen sektorekoak izan dira, 1.554 Industriakoak, 379 Eraikuntzakoak eta lehen sektorekoak, aldiz, 125 gehiago.

Inflazioa birbideratzeko bidean Elikadura eta edariak, Altzariak eta etxeko gauzak dira prezio igoera handiena izan duten salgaietako batzuk; **Etxebizitzak eta Garraioak**, aldiz, prezioen igoera apaldu dute. Abuztuko maximoaren ondoren, **inflazioa % 6,8ra jaitsi da azaroan**. Ematen du goia jo duela. Eskaintzen mugapenean eman den hobekuntzaren eta jardueraren jaitsieraren konbinazioarekin ematen du EBZk epe ertainerako zehaztutako prezioen birbideratzerantz jotzen ari garela, nahiz eta zalantza nagusia **prezioen «normalizazio» eritmoa** den, diru-politika horren azkar zorrotzu ondoren.

TAM-12ari begiratuta, etxebizitzaren hipoteka-merkatuaren hazkundera pixkanaka moteltzen ari da oraindik, aurrekoak baino aurrerapen apalagoekin (% 12,8 jatorrizko lurraldean eta % 21,8 gainontzeko merkatuan). Horrek erakutsi dezake hipoteken merkatua ziklo-aldaketa baterantz doala.


2. Hazkundera apaldu da

Tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi (%)




2022IIIHn, euskal ekonomiaren BPGd-a **urte arteko % 3,8** hazi zen eta haren erreferentziako ingurune hurbilarekin bat datorren bidea egiten ari da. Hau da, estatuaren pare dago (% 3,8) eta Eurogunearen gaineratik (% 2,1). **Urteak aurrera egin ahala, nabaria da indarraren galera**, ziurgabetasuna oso handia den testuinguru batean. Itxieran hondoa jo ondoren, 2023ko lehen hiruhilekotik aurrera joera aldatuko dela aurreikusten da, nahiz eta ez den ezinezkotzat jotzen atzeraldi batean sartu-irten azkar bat egitea.

2. Kanpoko ekarpen apalagoa



Hazkundearen intentsitatea pixkanaka apaltzen ari da oraindik. **Barne-eskaria** handituz ari da 22IIIHn (% 2,4), **FBKaren tasan atzeraldi txiki batekin** (% 4,9) eta **Azken kontsumo** maila altuagoekin (% 1,7), sektore publikoaren uzkurte txikiagoaren ondorioz. **Esportazioen** (% 9,2) eta **Inportazioen** (% 5,6) hedapen-tasa apalagoaren ondorioz, **kanpo-sektorearen** ekarpena **1,4 pp**-koa izan da, aurreko bi hiruhilekoetan 2,6 pp-koa izan ondoren.


2. Igoera apala Eraikuntzan eta lehen sektorean



Fuente: Eustat, elaboración propia

Hirugarren hiruhilekoan euskal ekonomiaren oinarriak ahuldu egin dira. **Industria % 3,8an kokatu da** eta **Zerbitzuak, berriz, % 4,3an. Eraikuntzak** hobera egin du apur bat (**% 2,5**) eta **lehen sektoreak (% 8)** bide gorabeheratsuagoa bizi izan du, EAEko BPGd-aren osieran daukan pisu erlatibo txikiagoa dela eta.


2. Barne-eskariak ez du indarrik galdu



PIB Trimestral (demanda)	2021		2022		
	III	IV	I	II	III
GASTO EN CONSUMO FINAL	2,9	3,8	2,6	1,5	1,7
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	2,5	4,0	3,2	3,0	2,4
-Gasto en consumo final de las AAPP	4,4	3,3	0,6	-3,1	-0,7
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	2,9	3,0	0,5	5,0	4,9
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	5,8	5,7	9,1	9,0	6,9
DEMANDA INTERNA	2,9	3,6	3,2	2,4	2,4
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	13,6	13,5	13,5	13,7	9,2
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	12,6	9,3	10,4	8,5	5,6
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	4,7	4,9	5,8	5,0	3,8

Barne-eskariaren (% 2,4) hazkundearen indarra bere horretan mantendu da. 2021eko hiruhileko berarekin alderatuta administrazio publikoen azken kontsumoan eman den uzkertzea inbertsioaren dinamismoarekin orekatu da.





2. Kanpo-sektoreak hazkunderari egindako ekarpena txikiagoa izan da



Fuente: Eustat

Kanpo-sektoreak indarra galdu du **esportazioen % 9,2ko** eta inportazioen **% 5,6ko hazkunderarekin**, hau da, aurreko hiruhilekoetan baino apalagoa izan da ekarpena.

2. Eskaintzan, oinarriak beherako bidean




Fuente: Eustat


Eskaintzaren ikuspegitik aipatu beharra dago euskal BPGd-aren bi osagai nagusiek, Zerbitzuek eta Industriak, hazkundearen apaltze bat erakusten dutela; Eraikuntzak eta Lehen sektoreak, aldiz, garbiago ari dira gora egiten.

2. Zerbitzuen erritmorra

Estructura y Variación PIB IIIT22



Aportación al PIB IIIT22 (pp)




Fuente: Eustat, datos propios


EAEko hazkundearen bultzatzaile nagusia Zerbitzuen sektorea da. Gauzak horrela, euskal BPGd-aren % **63,3 Zerbitzuen** sektoretik dator; % **4,3** hazi da datu errealetan 22IIIHn, 2,7 pp-ko ekarpenarekin. **Industriaren** pisua % **20,7** ingurukoa da, % **3,8** egin du aurrera eta hazkunde osoari egiten dion ekarpena **0,8** pp-koa da; **Eraikuntzak**, aldiz, euskal BPGd-aren % **4,9**arekin, erritmoa berreskuratu du eta % **2,5** egin du aurrera datu errealetan; lehen sektorea, azkenik, % **0,9**ko pisua dauka, % **8,0** hazi da eta **0,1** pp-ko ekarpena egin du.

2. Produktibitate sektorialaren sailkapena

Estructura Empleo y PIB IIT22



Productividad por sectores IIT22



Fuente: Eustat Elaboración propia

Industria sektorean, **aurreikusitako produktibitate maila handiagoa** da, enpleguaren % 20,4arekin *outputaren* % 21,5eko ekarpena egiten baitu. Horrek **produktibitate erregistro altua** suposatzen du (**105,8**) eta atzetik ditu Zerbitzuak (**80,1**), eskulan ez hain produktiboarekin, eta Eraikuntza (86,1). Lehen sektorea, aldiz, sailkapenaren amaieran dago, 76,5 inguruko produktibitatearekin.


2. Lan-okupazioak gora eta langabeziak behera (% 8,5)

Tasa de paro: IIIT22
7,9%



19,513 empleados más que en IIIT21

Puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo




Fuente: Cuentas económicas. EPA. Eustat.

3.490 langabe gutxiago daude 22IIIHn, eta **langabezia-tasa % 7,9ra** jaitsi da. **22IIIHn, lan-okupazioari** dagokionez, lanaldi osoko lanpostuak milioitik gora dira, hau da, iazko hiruhileko berean baino 19.513 enplegu gehiago. Horietatik 17.453 enplegu Zerbitzuen sektorekoak izan dira, 1.554 Industriakoak, 379 Eraikuntzakoak eta lehen sektorekoak, aldiz, 125 gehiago.


2. Inflazioa birbideratzeko bidean da, goia jo ondoren

Inflación por sectores

Evolución CAE





Evolución de la Inflación



Fuente: INE

Elikadura eta edariak, Altzariak eta etxeko gauzak dira prezio igoera handiena izan duten salgaietako batzuk; **Etxebizitza eta Garraioa**, aldiz, prezioen igoera apaldu dute. Abuztuko maximoaren ondoren, **inflazioa % 6,8ra jaitsi da azaroan**. Ematen du goia jo duela. Eskaintzen mugapenean eman den hobekuntzaren eta jardueraren jaitzieraren konbinazioarekin ematen du EBZk epe ertainerako zehaztutako prezioen birbideratzerantz jotzen ari garela, nahiz eta zalantza nagusia **prezioen «normalizazio» erritmoa** den, diru-politika horren azkar zorrotzu ondoren.

2. Inflazioaren ondorioz, diru-bilketa bi digitukoa da




Urrira arte pilatutako **diru-sarrerak 14.217M€** dira, hau da, aurreko ekitaldian baino **% 17,2** gehiago. Zuzeneko zergek gora egin dute (% 16,1) eta PFEZ izan da haren osagai nagusia **5.206M** euroekin (% 13,2); zeharkako zergen diru-sarrerak ere igo dira (% 18,3) eta BEZa izan da bere osagai nagusia, **5.765M** euroekin (% 23,3). EAEko zorraren maila bigarren hiruhilekoan, **6.068M**, **% 15,1**ean mantendu da, **35M** euroko defizitarekin, euroko baliabide ez-finantzariotan jatorria daukana, enpleguen **6.103M euroen** aurrean.


2. Inbertsio pribatua egonkortu da; pandemiatik datorren aurrezki-koltxoia errenta erabilgarriaren erorketarekin orekatu da

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: Junio 2022

Créditos S. Privado



Depósitos S. Privado




2022ko ekaineko datuek erakasten dute **sektore pribatuko kreditua egonkortuta dagoela**, -% 0,1eko uzkertze arin batekin, eta gordailuen hazkunde tasak apaldu direla erreferentziazko bi eremu geografikoetan. Kontsumo geroratu gisa familiek pandemiaren metatu zituzten saldoak koltxoi efektua izaten ari dira eta eros-ahalmenaren galera orekatzen ari dira, inflazioaren azkartze handi eta ondoriozko errenta erabilgarriaren uzkertze batean.

2. Kreditua egonkortuta dago eta gordailuen hazkundera apaltzen ari da

Últimos datos publicados por BdE al cierre del informe: Junio 2022



% de variación de Créditos y Depósitos S. Privado



Fuente: BdE. Elaboración propia

2022ko ekainean, **Sektore pribatuko gordailuen saldoa 89.675M eurokoa da (% +1,7), eta kreditu pribatuen saldoa, aldiz, 62.419M eurokoa (-% 0,1)**. Aldea 27.250M eurokoa da. Kreditua egonkortuta dago eta gordailu pribatuen hazkundera erritmoa apaldu egin da; Kreditu eta Gordailu pribatuen arteko oreka txikitzen ari da, % 69,9raino EAEn, eta maila mantentzen ari da Espainian, % 83,4.

2. Hipoteken merkatua: ziklo aldaketarantz?




Fuente: INE. Elaboración propia

TAM-12ari begirata, **etxebizitzen hipoteka-merkatuaren** hazkundera pixkanaka moteltzen ari da oraindik, aurrekoak baino aurrerapen apalagoekin (% **12,8** jatorrizko lurraldean eta % **21,8** gainontzeko merkatuan). Horrek erakutsi dezake hipoteken merkatua ziklo-aldaketa baterantz doala.

3. Berankortasuna murrizten ari da oraindik





Evolución de la morosidad y cobertura




2022ko irailean, OSR kredituaren berankortasun-tasa **hobetzen ari da eta % 3,79an kokatu da**: OSR kreditu-saldoa 1,596 M eurotan uzkurdu da, eta zalantzazko aktiboek -912 M euroko uzkurte paraleloa izan dute. **Urte arteko datuei** begiratuta, berankortasun-tasak -0,57 ehuneko egin du behera: urte arteko zalantzazko saldoen murrizketak (-6.500 milioi) kredituaren saldoaren hazkunde gordina +16.472 milioitan handitu du eta 1.177.178 milioitan dago orain. Zalantzazko kredituen saldoa 46.235 milioikoa da orain.

3. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	jun-22	jul-22	ag-22	sep-22
<u>IPI (INE)</u>	12,4	2,4	3,2	6,5
<u>Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)</u>	-17,3	-34,8	-3,6	2,7
<u>Hipotecas. Número (INE)</u>	19,5	-5,3	18,3	-1,4
<u>Hipotecas. Importe (INE)</u>	31,6	-5,8	8,1	10,2
<u>Compraventa viviendas</u>	1,0	7,3	20,8	4,2



3. Espero zen doitzea



Fuente: INE, Eustat y elaboración propia

Hirugarren hiruhilekoan ziurgabetasun handia da jaun eta jabe, hala eremu mediatikoan nola makroekonomikoan, dagoeneko ikus daitekeen moteltze ekonomikoaren ondorioz. Horrenbestez, hazkunderako aurreikuspenak apaltzen ari dira, baita EAEn ere, eta ez da baztertzen atzeraldian sartzea. Hala ere, aurreikuspenen arabera, iraupen laburreko fenomeno arina izango litzateke.

3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

Euskadi	PIB	
Panel de Previsiones	2022	2023
Confebask	5,9	-
Hispalink (VAB)	4,3	2,7
BBVA	3,5	1,1
CEPREDE	3,8	1,3
Gobierno Vasco	4,3	2,1
Media	4,4	1,8
<i>Máximo</i>	<i>5,9</i>	<i>2,7</i>
<i>Mínimo</i>	<i>3,5</i>	<i>1,1</i>

Fuente: DEP-noviembre 2022

4. Eurogunea: uzkurtze-bidean, gastuaren etenaldiarengatik

IHS Markit Indice PMI compuesto de la Zona euro Noviembre 2022

S&P Global Eurozone Composite PMI Output Index




[PMI: IHS Markit](#), Eurostat

Sasoitu gabeko S&P Global Eurozone, PMI konposatuaren ekoizpen indizea, **uzkurtze-eremuan** dago, 50eko mugatik behera, 47,3an hain zuzen, Eurogunean enpresen jarduerak izan duen uzkurtzearen isla garbia, hala manufakturen nola zerbitzuen sektorean. Inflazioaren mugagabeko igoerak kaltetutako bezeroen gastuaren kontrolaren ondorioz etorri da eskariaren ahuldadea.

4. Moteltzeak ez du etenik

Previsiones OCDE (noviembre 2022)



Fuente: OECD Economic Outlook (Edition 2022/2)


OCDE e INE

Crecimiento del PIB en España

PIB: 3,8% (a/a) en IIIT2022

Producto interior bruto


Volumen encadenado. Tasas de variación interanual (%)




ELGEn arabera, munduko ekonomiarentzat mehatxu diren erronkak hazkundera kaltetzen ari dira, inflazio handi eta iraunkorra nagusi den testuinguruan. Energia eskasiak eragingo lukeen prezioen igoeraren eskutik etorriko lirateke arriskuak. Inflazioa gelditzeko interes-tasa altuagoek finantza-zaurgarritasunak handitzen dituzte. Ukrainako errusiaren gerrak diru-sarrera apaleko herrialdeetako zorpetze-arriskua eta elikadura-arloko ziurgabetasuna handitzen ditu.

INEn arabera, Espainiako ekonomiaren jarduera 22IIHn % **3,8ra jaitsi da**, ekitaldi honetan ikusi zaizkion ahultze-zantzen dinamikaren barruan. Inflazio handia familia eta enpresen eros-ahalmena higitzen ari da. Gainera, inflazioarekin batera, neurri murriztaileak hartu dira diru-politikan, eta tasek eta interesek gora egin dute, diru-politikaren «normalizazio» prozesuaren bizkortze baten barruan. Horren guztiaren ondorioz, **barne-eskariaren indarra ahuldu egin da**, hala kontsumoaren nola inbertsioaren ikuspegitik.

4. Inflazioa hazi da, baina erritmo apalagoan



Fuente: OCDE




Fuente: Funcas

2022an BPGd-ak izan duen % 4,5eko hazkundera konbinazio honetatik etorri da: **kanpo sektorearen ekarpen txikiago bat**, 2,9 pp-rekin, eta, neurri apalagoan, eskari nazionala, 1,6 pp-rekin, hau da, iraileko adostasuna baino 1,1 pp txikiagoa. **Inflazioa** haren hazkunde bidean indarra galtzen ari den zantzuak utzi ditu, eta apur bat behera egin du azken erregistroetan, EBZren diru-politika murriztaileak, interes-tasen hainbat igoyerarekin, indarra hartzen ari den neurrian. Hala ere, prezioen gorako ibilia onbideratzeko prozesua pixkanaka garatuko da eta 2024aren amaierara arte ez da helburu ofizialetatik gertu ibiliko.

4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aukerak (ELGE)

Evolución del PIB, España

Crecimiento en % respecto al período anterior, a tasa anualizada, cuarto trimestre de 2020 - cuarto trimestre de 2024



Banco España

ELGEk azaroan egindako aurreikuspenen arabera, Espainiako ekonomian moteltze zantzuak ikus daitezke. BPGd-aren hazkundearen aurreikuspena **2023rako % 1,3koa** da eta minimoetan dago; une horretatik aurrera, gorako bideari ekingo lioke pixkanaka, eta **2014an % 1,7ra** helduko litzateke. Inflazioak kontsumoan izan duen eragina pandemian metatutako aurrezkiaren koltxoiarekin orekatuko litzateke zati batean, eta kolpea arintzeko balioko luke.

4. Aurreikuspenen panela. Espainia

Última actualización

nov-22

España

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AFI	4,5	0,9	8,5	4,0	12,8	13,0
BBVA	4,4	1,0	9,3	4,9	13,0	13,3
Caixabank	4,5	1,0	9,1	4,5	12,8	13,1
CEEM	4,6	1,0	9,0	4,6	12,8	12,6
CEPREDE	4,5	1,5	8,9	3,9	13,1	13,0
CEOE	4,6	0,8	8,5	3,9	12,9	13,0
Funcas	4,5	0,7	8,6	4,6	12,4	12,0
ICAE-UCM	4,6	1,5	8,5	3,8	12,9	12,7
IEE	4,5	1,2	8,5	3,0	13,1	13,5
Intermoney	4,3	1,4	8,5	4,0	13,6	13,5
CONSENSO (media)	4,5	1,1	8,7	4,1	13,0	13,0
Máximo	4,6	2,2	9,3	5,4	13,6	13,6
Mínimo	4,1	0,7	8,4	3,0	12,4	12,0
PRO MEMORIA						
Gobierno (oct 22)	4,4	2,1	-	-	12,8	12,2
BdE (oct 22)	4,5	1,4	8,7	5,6	12,8	12,9
CE (nov 22)	4,5	1,0	8,5	4,8	12,7	12,7
FMI (oct 22)	4,3	1,2	8,8	4,9	12,7	12,3
OCDE (junio 22)	4,1	4,2	8,1	4,8	13,6	13,9

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2022IIIH

2022ko abenduaren 7a



kutxabank
empresas